

INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAREN INGENIARITZAKO GRADUA PRESTAKUNTZA DUALERAKO HAUTAKETA PROZEDURA

Kontuan hartu beharreko datak:

- Eskaera egiteko epea: uztailan hasi eta irailean amaitu.
- Hautaketa prozesua i: iraila eta urria bitartean.
- Azaroan eta abenduan hautatutako enpresen dokumentazioa izapidetuko da.
- Prestakuntza dualerako ibilbidea urtarrean hasiko da

Ikasleei posta elektronikoaren bidez jakinaraziko zaie noiz irekiko den eskaerak egiteko epea, agiriak erantsita (enpresen eskaintako plaza buruzko informazioa ere egongo da eranskinetan). Mezuan, bestalde, ibilbide DUALerako plaza kopurua zehaztuko da.

1) Ibilbide duala egiteko baldintzak:

1. Ez izatea gaituta ibilbide dualerako irakasgaiak.
2. Matrikulatuta egotea hirugarren mailan gaituta gabeko irakasgai guztietan.
3. Gehienez 18 ECTS izatea gaituta gabe lehenengo eta bigarren mailatan.

2) Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasleak hautatzeko prozesua

Hautaketa irizpideak: Ikasleak baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, lehentasun hurrenkera ezarriko da "Hautaketa nota" oinarri hartuta. Nota honek kontuan hartzen ditu graduko lehen eta bigarren mailatan gaitutako kredituak eta espedienteko nota, eta era honetara kalkulatzen da:

$$\text{Hautaketako nota} = \text{EBBN} \times 0,5 + A \times 5$$

EBBN= Espedienteko batez besteko nota

$$A = 1 - (1. \text{ eta } 2. \text{ mailatan gaituta gabeko kredituak}) / 30$$

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta astebeteko epean, hautatuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, eta 3 egun balioduneko epea egongo da erreklamazioa aurkezteko; epe hori amaitu ondoren, hautatutako enpresen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

3) Enpresen ikasleak hautatzeko prozesua

Eskolako hautatutako ikasleak eta beren lehentasunak kontuan hartuta, enpresen ikasleak hautatuko dituzte eta hautatutako enpresen zerrenda ordenatu bat proposatuko du.

Hautaketa egin aurretik, enpresa ikaslearekin harremanetan jarri behar da. Prozesu horrek bi edo hiru aste iraungo du, gutxi gorabehera.

4) *Ikasleak enpresei esleitzea*

Enpresa bakoitzak hautatutako ikasleen zerrendari eta hautaketa notaren arabera zerrendari jarraikiz, eskola ikasleekin jarriko da harremanetan, ikasleak, lehentasunak kontuan izanda, enpresa aukeratu dezan. Horrela, zerrenda bat osatuko da ikaslea eta enpresa zehaztuta.

Enpresa bati esleitutako ikasle kopurua eskainitako plaza kopurua baino handiagoa bada, 2. puntuan adierazitako zerrendaren arabera, hau da, lehentasun hurrenkeraren arabera, esleituko dira ikasleak kasuan kasuko enpresara, plaza guztiak bete arte.